

NORA ARTE



NERE ADISKIDE ZAR ETA ON RAMON ARTOLA JAUNARI AMALAUDUN BAT

Al izatea baldin baneuka nere eskuan,
 Eingo nituken ala ez ere, eztakit nik,
 Gazte aldiko doai ederrak nere buruan
 Piztu erazi barrundik nola azaletik;
 Gaztetasunak berdiñik ez du ezer munduan
 Aginpiderik, itzaltasunik ez dirurik,
 Beste gauzarik ez duelako arrek goguan
 Poz, jostaketa, farra, irrintza ta besterik.

Gaztetasuna guzientzat da Udaberria,
 Giltza batekin nork al lezaken bera gorde,
 Ramon joana joanik dago ¡o! zeñ egia!
 Bakizu gure gaztetasuna non dan ere,
 Bakizu nondik noraño doan charko bizia,
 Gu noruntz, nola, joan da joan, nora arte.

*
 * *

BETI GAZTE



ROSARIO ARTOLA BERSOLARIARI AMALAUDUN BAT

Zorakeria diote dala anziñakoa,
 Urteak dauzka baña, kontuan erortzeko,
 ¿Nola etzayo zentzuz betetzen baña burua?
 ¿Zer du aiñ gichi urte askokiñ jakiteko?
 Gizaldi denak ikusi dute beti gaurkua,
 ¿Zer ote dauka illerikan ez elurtzeko?
 ¿Mundu au balitz bezela toki chit doatsua
 Lore ederrez bere burua estaltzeko?